



ENPRESEN AHOLKU FOROA

2021eko otsailaren 2a

GAI-ZERREDA:

- 1.- Ongietorria, ordezkarien aurkezpena eta bileraren helburua
- 2.- Mahai sektorialen proposamenak azaltzea
- 3.- Talde-hausnarketa proposamenak aztertze
- 4.- Proposamenen banakako hausnarketa eta puntuazioa
- 5.- Hurrengo urratsak: Kontrasteko Mahai Politikoa

BERTARATUTAKOAK: (% 72,7)

| DEITUTAKOAK | | BERTARATUAK | AUSENTZIAK | |
|--|----------------------|-------------|----------------|-------------------|
| | | | Arrazoa emanda | Arrazoa eman gabe |
| Ostatuen ordezkaria | Javier Angulo | x | | |
| Taxien ordezkaria | Jose Ignacio López | | x | |
| Kirol-aisialdikoek ordezkaria | Hector Garcia | x | | |
| Interpretazio-zentroen, gidarien eta bidaia-agentzien ordezkaria | Ainhoa Sarriegi | x | | |
| Merkatarien ordezkaria | | | | |
| Getxo Enpresa | Elena Cantera | | | X |
| Romo Bizirik | Ainhoa Calderón | X | | |
| Algortako Dendak | Amaia Sertutxa | | | X |
| Ostalaritzakoek ordezkaria | | | | |
| Asohge | Asier Mondragón | x | | |
| Getxo Enpresa | Maria del Fresno | X | | |
| Getxoko Udala - Ekonomia Sust. Arloa | Mirene Zabalgogazcoa | X | | |
| | Sonia Urdiain | X | | |

1.- Ongietorria, ordezkarien aurkezpena eta bileraren helburua



Deialdian parte hartzen duten ordezkari guztien aurkezpen laburra egin ondoren, bileraren helburua gogorarazi da:

- ✓ Mahai sektorialek egindako proposamenak ezagutzea eta aztertzea.
- ✓ Proposamenak lehenestea, multzoarentzat interesgarriak izan daitezen pentsatuz.
- ✓ Kontrasteko Mahai Politikoan aurkeztea prestatzea, baloratu eta onar dadin, bai eta aurrekontu-zuzkidura ere, beharrezkoa denean.

2.- Mahai sektorialen proposamenak azaltzea

Mahai sektorialek egindako proposamenen zerrenda aipatu da, erantsitako dokumentuaren arabera (1. eranskina), eta honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- ✓ Proposatzen duen mahai sektoriala
- ✓ Proposamenaren sektore onuradunak
- ✓ Egoera: abian/egiteke
- ✓ Aurrekontuaren erabilgarritasuna (arrunta) eta/edo aurrekontu gehigarriaren beharra (ezohikoa)

Ez dira barne hartzen dagoeneko gauzatuta dauden atazak eta/edo jarduketak.

Akats baten ondorioz, "Eragindako sektoreentzako zuzeneko udal-laguntzen" proposamena alde batera utzi da. Proposamen hori ostatu- eta ostalaritza-mahaietako aktetan jasotzen da, besteak beste, eta sektore guztiei eragiten die.

Ordezkari guztiak bat datoz 1. lehentasunarekin puntuatzean. 1. eranskinean sartuta dago.

3.- Talde-hausnarketa proposamenak aztertzeko

Proposamenei buruz eztabaidatu eta hausnartu da, taldean.

Ordezkari batzuek adierazten dute zaila dela xehetasunezko informaziorik ez duten eta/edo ezagutzen ez dituzten jarduera jakin batzuk baloratzea, beren sektorean eraginik ez dutelako.

Honako formula alternatibo hauek bilatuko dira zailtasun hori arintzeko:

- ✓ Proposamen bakoitzari buruzko aurretiazko informazioa bidaltzea
 - ✓ Mahai sektorialei eskatzea beren proposamenak Forora bidaltzeko, lehentasunez.
-



4.- Proposamenen banakako hausnarketa eta puntuazioa

SForoaren aurreko saioan erabilitako puntuazio-sistema konplexua izan zenez parte-hartzaile gehienentzat, metodologia sinpleago bat proposatu zen: proposamen bakoitza 1etik 3ra puntuatzea (1 balio handienekoa eta 3 puntu txikiarenekoa). Bertaratutakoek positiboki baloratu dute aldaketa.

Horrela, eta taldekako hausnarketaren ondoren, ordezkari bakoitzak proposamen bakoitza puntuatu du, banaka.

Sustapen Ekonomikoko talde teknikoari ematen zaizkio, bakoitzak lehenetsitako proposamenen zerrenda; itzul dezan, bere puntuazioen arabera. (2. eranskina)

5.- Hurrengo urratsak: kontrasteko Mahai Politikoa

Sektoreko ordezkariari gogorarazi zaie Kontrasteko Mahai Politikoaren bilera astelehenean izango dela, hilaren 15ean, 14:30etik 16:30era.

Otsailaren 5etik 8ra bitartean, sektoreko ordezkariari eta ordezkari politikoei dokumentazio guztia ematea aurreikusi da, bilera dinamikoagoa izan dadin.

Info gehiago: ikusi erabilitako aurkezpen dokumentua.

6.- Bestelakoak

Bileran honako gai hauek komentatu eta proposatu dira:

- ✓ Terrazako tasa: ordaindu beharko da ostalaritza itxita dagoen bitartean?
- ✓ Ostalaritza: take away zerbitzua eskaintzen duten lokal batzuen inguruan pilaketa-egoera ez oso gomendagarriak gertatzen ari direla adierazi da, baita alkohola saltzeko aukera ere. Covid informatzaileak eta Udaltzaingoaren jarduna koordinatuko da.
- ✓ Web take-away: jakinarazi da Mahai Sektorialeko ordezkari guztiek ez dutela proiektu horri buruzko iritzirik eman. Bertaratutakoek jakinarazi dute denek zutela horren behararen berri, eta ondorioztatu dute ez dela lehentasunezkoa egungo egoeran; ez dute uste negozio-lerro horiek zabaltzeko bakarrik erabilgarria denik. Sektore guztiei estaldura emango dien tresna baten alde egin dute, tokiko kontsumoa sustatzeko sustapen globaleko kanpainaren esparruan, sektore guztiek planteatuta.
- ✓ Getxo Moda eta beste udal-ekitaldi batzuk: birplanteatu egin behar dira, tokiko talentuari balioa emateko



Erabakiak (ENPRESEN KONTSULTA FOROA; 2021-02-02):

| ERABAKIAK/EKINTZAK | ARDURADUNA | DATA |
|---|------------------|---------------------------|
| 1. Aktaren zirriborroa bidaltzea | Udal teknikariak | 2021-02-05 |
| 2. Lehenetsitako proposamenen zerrenda itzultzea, Enpresen Aholku Foroko kideek egindako puntuazioetan oinarrituta. | Udal teknikariak | 2021-02-05 |
| 3. Terrazen tasatik salbuetsiko diren egiaztatzea arlo eskudunarekin, terrazak itxita dauden aldian. | Udal teknikariak | 2021 – 02 -15 baino lehen |
| 4. Covid informatzaileen taldearekin batera, planteatu diren gaien zaintza koordinatzea (aglomerazioak/alkol salmenta) eta, beharrezkoa denean, Udaltzaingora bideratzea. | Udal teknikariak | 2021-02-05 |